



GIZA ESKUBIDEEN
ZINEMALDIA
FESTIVAL DE CINE
Y DERECHOS HUMANOS
HUMAN RIGHTS
FILM FESTIVAL

STM
San Telmo Museoa

Isaki Lacuestak eta Juan Aizpitartek emango dute “Ikusezin dena filmatzea. Zinea, artea eta adierazpen askatasuna” tailerra

Tailerra apirilaren 24tik 26ra bitartean emango da
Giza Eskubideen X. Zinemaldiaren barruan

Nazioarteko Amnistia, lehenasunezko ekintzat duena zinegile irandarrak jasaten ari diren errepresioa eta jazarpena salatzeke mobilizazioa bultzatzea, eta Giza Eskubideen Zinemaldia, San Telmo Museoarekin lankidetzan (bertan emango da tailerra), dira **Ikusezin dena filmatzea. Zinea, artea eta adierazpen askatasuna** tailerraren antolatzaileak. Tailerrak hiru egun iraungo ditu, apirilaren 24tik 26ra, Zinemaldiaren X. edizioan programatutako jardueren barruan, eta gizakiak artearen bidez adierazteko duen askatasuna izango da bertan helduko zaion gaia.

Hausnarketa ariketa bat da, tailerrak iraungo dituen hiru egunetan publikoarekin partekatzekoa. Izan ere, tailer hau guztiontzat dago zabalik eta Isaki Lacuestaren **Alpha and Again** dokumentala eta plastika arloan diharduen Juan Aizpitarte artista donostiarrak Beijingen zuzendutako **The Gray Wall** saila abiaburutzat hartuta, munduan diren errealitate desberdinak hurbilduko dizkie bertan parte hartzen dutenei, zinegile irandarren egoeran arreta berezia jarriz. Horrexegatik, Jafar Panahiren eta Mojtaba Mirtahmasben **This Is Not a Film** filma ere sartzen da zinemaldiaren programazioan.

Zenbait solasaldi ere izango dira tailerraren osagarri, hauek zuzenduko dituztenak: Itziar Ruiz-Jiménez Arrieta, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Nazioarteko Harremanetako irakaslea eta 20 urtez Nazioarteko Amnistiako kidea, eta Abbas Bakhtiari, kultur kudeatzaile irandarra.

San Telmo Museoko jardueretarako sarrera **doan** izango da.

ASTELEHENA, APIRILA 23 / 16:30 / VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

- **Esto no es una película** (*This Is Not a Film*) filmaren proiektzioa. Zuzendariak: Jafar Panahi eta Mojtaba Mirtahmasb (Iran, 2011).

Isaki Lacuestak eta Abbas Bakhtiarik (Pariseko Centre Culturel Pouyaren zuzendaria) aurkeztuko dute proiektzioa. Nazioarteko Amnistiaren manifestua irakurriko da, zinegile irandarren jazarpena salatuz eta filmaren alde agertuz. Sarrerak 4 € balio ditu (tailerlean parte hartzen dutenek proiektziora etorri nahi badute sarrera bat eska dezakete telefono honetan, **618 95 79 50 / Montserrat Arroyo**).

Film hau, 2011n zinearen arloan gertaera handitzat hartutakoa, zinea zer den hausnartzetik harago doa, Jafar Panahipak diharduen zinegile lanbidean bertan desobedientzia zibila adierazteko ekintza bihurtzeraino. Panahiri 20 urteko zigorra ezarri diote, denbora-tarte horretan filmatu ezin gabe, eta hauxe da film honetan bildu duena: etxean atxilotuta bizi duen egunerokotasuna, beste zinegile baten, Mojtaba Mirtahmasben ikuspegitik abiatuta. Hauxe da emaitza, askatasun artistikoari buruzko dokumentu bat, baina baita ideiei, denborari eta zineak betetzen duen zereginari buruzkoa ere.





TAILERRAREN PROGRAMA

ASTEARTEA, APIRILA 24 / 10:00 – 13:00 / SAN TELMO MUSEOA

10:00

- **Alpha and again** (2008) filmaren proiektzioa. Zuzendariak: Isaki Lacuesta eta Isa Campo.

Isaki Lacuesta (Girona, 1975) zinegileak bere lana, film laburrari heltzen dion modua eta bere esperientzia azalduko ditu solasaldi ireki batean.

“Paradoxikoa eman dezake baina ez da: zineak eraginkortasun handienaz bete izan duen zereginetako bat hauxe da, ikusi ezin izaten ditugun errealitatearen alderdi horiek agerian uztekoa.

Zehazki, komunikabideek eta gure eguneroko ohikeriak ezkutatu ohi dizkiguten gizarte garaikidearen alderdi horietan hausnartzen dugu. Baina baita gizakien sentimenduetan, bizitza emozionalean ere, haien arrasto fisikoen, argazkitan jasotako arrasto materialen bitartez bisualki baino aditzera eman ezin ditugun horietan.

*Horren guztiaren erakusgarri bat hau litzateke: **Goggle Earth 1.0. Lugares que no existen** saileko bideoak. Horietan, satelite bidezko Google Earth irudi-programak aintzat hartu ez zituen espazio haietan gertatzen ari zena erakutsi genuen. Eta ez da, ez, kasualitatea; goggle hitzak (bi “g”rekin eta ez bi “o”rekin) “begietakoak” esan nahi du.*

Ikusgai/ikusezin denaren nozioa lantzea erretratuaren eremutik abiatuta, ahalik eta ikuspegi zabalagoenetik hartuta: fisikoa, psikologikoa, morala, baita sinbolikoa ere, leku, une edo problematika sozial batena. Horretarako, eduki teorikoaren hasierako saioa ikustaldiekin eta lan praktikoekin txandakatuko dugu”.

12:00

- Juan Aizpitarte (Donostia, 1974) artistak **The Gray Wall** bere saila aurkeztuko du, 2010ean Beijingen egina.

“Beijingen egin dudan lanean, megalopoli horrek eskaintzen dituen espazio publiko desberdinetatik ibiltzea hartu dut oinarritzat, komunikazio ez-ofizialeko zeinuak argazkitan jasoz. Bertako mezuetan eta jarduteko moduetan Txinako gizartearen erretratuaren interpretazio bat egiteko asmoz, oso zabaldua dagoen fenomeno berezi batean jarri dut arreta. Kontrakomunikazioa da, agintaritza modu ikusezin batetik hedatzera emana, pintura orbana erabili eta paisaia piktoriko espresiboa, inboluntarioa eta apokrifoa sorrarazten duena aldi berean. Txinako eta Euskal Herriko kulturen arteko ikerlana eta alderatze lana, hirietako sinbologia tradizionalaren eta garaikidearen bitartez. Azken finean, herensugearen larru lodiaren atzetik zer dagoen jakitea izan da helburua. Espazio publikoan (kalea eta bertako hormak) dituen adierazpideetatik eta duen sinbologia unibertsalaren bitartez, grafitia; eta, bestetik, publizitatea eta propaganda politikoa.





Eta lanaren emaitza argazki-koaderno bat izan da. Bertan, hainbat adierazpide indibidual eta kolektibo jasotzen dira, gizabanakoak kalean erlazionatzen diren modua eta gertaeren segida horrek hiriko paisaia nahi gabe dekoratzen duen modua argi eta garbi irudikatu edo azaltzen dituztenak.

12:45

- Artistek ariketa bat proposatuko diete bertaratutakoei, hurrengo egunean iruzkinduko dutena. Gure ingurunea aztergai izatea da asmoa. Kaleko zeinu desberdinen inguruan duten ikuspegia erakutsiko dute.

ASTEAZKENA, APIRILA 25 / 10:00 – 13:00 / SAN TELMO MUSEOA**10:00**

- Itziar Ruiz-Jiménezen parte-hartzea. Mapa bat trazatuko du munduko leku desberdinetan adierazpen askatasunaren inguruan, eta oraingo kasu zehatzez jardungo du, munduko adierazpen askatasuna zein egoeratan den erakutsiko diguten adierazleak helmenean eduki ahal izateko asmoz.

Itziar Ruiz-Jiménez: Nazioarteko Harremanetako irakaslea Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Gainera, unibertsitate horretako Afrikako Azterlanen Taldeko (GEA) eta Nazioarteko Azterlanen Taldeko (GERI) kidea da. Espainiako Nazioarteko Amnistiako lehendakari izan zen (2008-2010) eta epaimahaikide izango da Nazioarteko Amnistia Sarian, Giza Eskubideen X. Zinemaldian.

10:45

- Abbas Bakhtiari, Pariseko Centre Culturel Pouyaren zuzendaria, errepresioa eta jazarpena jasan duten artista irandarren kolektiboaren ordezkari gisa, **Esto no es una película** filmak erakusten duen errealitateaz arituko da, baita Iranen bizi duten adierazpen askatasun gabeziaren ere.

11:45

- Isaki Lacuestak eta Juan Aizpitartek parte-hartzaileekin aztertuko dute proposatutako ariketa hurrengo egunean. Euretako bakoitzak metodologia bat proposatuko du euren lanean izandako esperientziaren inguruan, gure ingurunea begiratzeko modu berriak garatzearen.

OSTEGUNA, APIRILA 26 / 10:00 – 13:00 / SAN TELMO MUSEOA**10:00**

- Isaki Lacuestak eta Juan Aizpitartek **ikusezin dena filmatzeari** lotutako ariketa bat erakutsiko dute. Aurreko egunetan irten egingo dira Donostiako kaleak filmatzera, eta hemen erakutsiko dute emaitzazko lana.





Oraingo munduaren ikuspegi bat jasotzeko, bertako zeinuak eta errepresentazio kodeak interpretatu behar dira. Zeinu horiek hainbeste direnez gaur egun, gertatzen ari den horretara hurbiltzen den ideiarenekin bat ateratu ahal izateko aukera emango diotenak deskodetuko ditu bakoitzak.

Egunkaria edo telebista, munduaren leiho, haitzulo bateko itzalak dira irudien eraikuntza prozesua sakonetik ezagutzen ez badugu.

Eta hortxe elkartze dira bi bide artistiko, errealtatearen errepresentazioen barruan zeinu ikusezinen bila dabiltzanak, errealtatea eta fikzioa banantzen dituen arteka, alegia. Batetik, Isaki Lacuestaren **Alpha and Again** lanean, Google Earth programaren barruan ulertzen dugu ikusezin denaren sotiltasuna, arriskuan dauden lekuak edo zalantza lekuak bilatzen aritzen garenean. Kasu honetan, lainoa da errealtatea ezkutatzeko modua. Erakutsi behar denaren eta erakutsi behar ez denaren errepresentazioari ondo baino hobeto egokitutako kasualitatea.

Lan berean eta aldi berean grafitia Txinan erakusten zaigu nazioartera zabaltzearen eta okzidentalizazioaren zeinutzat, modernotasun itxura emateko propio legalizatutako espazio batean. 798 izeneko galeria-gunea da hau, ezkonberriek eta modernoek erretratu argazkiak egiteko aukeratu ohi duten lekua. Bideoan egindako lan honetan, diskurtso paralelo ugari sorrazten ditu kontakizun ofizialaren eta errealtatearen ikuspegi baten arteko egiaztatzeak.

Juan Aizpitarrek, bestetik, hirietako espazioari buruzko bere lanean, Beijingen bertan antzematen zuen egoera hori, baimendutako grafiti hau gertaera bakan eta azaleko baterantz begirada desbideratzeko modu gisa aztertzean. Bere begien aurrean benetan eraikitzen zena, txinatar gizartea interpretatzeko zeinutzat, gris kolore orbanak ziren, megalopoliaren inguru osoan edozein adierazpen arrasto indibidual edo kolektibo zentsuratzeko erabiliak. Brassairen definizioaren ildotik, *"termometro sozial bat da grafitia"*, bat-bateko irudien bitartez herrialde honetako askatasun demokratikoaren egoera erakusten duena.

Eta errealtatetik ateratako horma sail baten mihise gaineko argazki proiektu bat garatu du, **The Gray Wall**, harresi handiaren eta zentsuraren gris kolorearen ohoretan. Irudiak ez dira ikusgarriak; atzean, ordea, ezkutuko ekintzen segida bat biltzen dute, kalean sumatzen den askatasun maila agerian uzten dituzten ekintzak izanik. Zera adierazten digu gainera, zeinu baten gabezia zeinu berri bat izatera iritsi daitekeela, semiotika piktorikoari lotutako diskurtsoa sorraziz.

Bi lan hauek behatu ondoren, hutsik dagoen horma batek ez du jadanik adierazten historiarik gabeko horma bat, ezta laino batek ere ekaitza. Hirien memoria idatzia pintura geruzen artean eta Interneteko efektu teknologiko bisualen azpian ere aurki baitaiteke.

Munduaren ikusmoldearen ereduaren isla distortsionatua diskurtso ofizialaren barruan bilatzen aritzen diren bi artista hauen xedeetako bat da ikusleak errealtate horien aurrean kontzienteago izan daitezen lortzea.



AMNESTY
INTERNATIONAL



GIZA ESKUBIDEEN
ZINEMALDIA
FESTIVAL DE CINE
Y DERECHOS HUMANOS
HUMAN RIGHTS
FILM FESTIVAL

STM

San Telmo Museoa

13:00

- Zuloaga plazan ekintza bat egitea proposatuko zaie parte-hartzaileei eta argazki formatuan dokumentatuko da prozesua. Parte-hartzaileek panel-oihal bat jarriko dute ikusgai, tailerlean gertatutako guztia ordeztuko duena, Nazioarteko Amnistiaren *Zinegile irandarren errepresio eta jazarpen gehiagorik ez* manifestuaren alde agertzeko eta adierazpen askatasuna defendatzeko.



donostia**kultura**.com



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIAN